

Erref/Ref:	2021/9W/SESJGL
Proz/Proc:	Expediente de sesiones de la Junta de Gobierno Local
Secretaría	

**TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**

**JUNTA DE GOBIERNO LOCAL**

**2021eko maiatzaren 11ko ohiko Bilkura**

**Sesión Ordinaria celebrada el día 11 de Mayo de 2021**

Aipatutako egunean, goizeko zortziak eta hogeita hamar minutu direnean, TOKIKO GOBERNU BATZARRA lehenengo deialdian ohiko bilkura egiteko bildu da udaletxeko Udalbatza aretoan. Orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek hartu dute parte, eta izatez zein eskubidez batzordea osatzen duten kideen gehiengoa dira; Idazkari Orokorrak lagundu egin die, eta guztia Leioako Udaleko Araudi Organikoa eta Herri Partaidetzakoaren 69 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren ondoretarako, Alkate Udaltzaburua irizpenerako jarri dituen gaiak aztertzeko edo kudeaketaren jarraipena egiteko helburuarekin.

Siendo las ocho horas y treinta minutos del día señalado, se reúne en primera convocatoria la JUNTA DE GOBIERNO LOCAL, en el salón de plenos del Ayuntamiento con la asistencia de los Concejales cuyos nombres al margen constan, y que constituyen la mayoría legal de los miembros de la misma a efectos de válida constitución, asistidos por la Secretaría municipal, al objeto de celebrar sesión Ordinaria, a los efectos previstos en los artículos 69 y siguientes del Reglamento Orgánico y de Participación Ciudadana del Ayuntamiento de Leioa, con el fin de despachar los asuntos que por la Alcaldía Presidencia se han sometido a su dictamen o al seguimiento de la gestión.

Ordu horretan, lehen deialdian, lehendakariak ekitaldia irekita zegoela adierazi zuen. Ondoren, ohiko bilkura honetako gai-zerrendan sartu zen.

A la mencionada hora, en primera convocatoria, por la Presidencia, se declaró abierto el acto, y, seguidamente se entró en el orden del día de esta sesión ordinaria

**Bertaratutakoak / Asistentes**

**PRESIDENTEA /PRESIDENTE** Iban Rodríguez Etxebarria  
**BATZORDEKIDEAK/VOCALES**

*Euzko Abertzaleak*

Mikel Abascal Somocuetto  
Estibaliz Bilbao Larrondo  
Xabier Losantos Omar  
Arantxa Díaz de Jungitu Tudanka  
Ugaitz Zabala Gómez

*Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak*

M<sup>a</sup> Teresa Álvaro Gómez del Pulgar

**BERTARATUTAKO BESTE BATZUK/  
OTROS ASISTENTES**

Marta Alvarez Oyarbide  
Enara Diez Oyarzun  
Pedro Arceredillo Buruaga

**IDAZKARIA/SECRETARIA** Chiara Camarón Pacheco

**EZ DA BERTARATU/NO ASISTE**

*Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak* Juan Carlos Martínez Llamazares

**GAI ZERRENDA / ORDEN DEL DÍA:**

**1.**

**Aurreko bilkuraren akta onartzea**

Secretaría.

**Número: 2021/8R/SESJGL.**

**Aprobación del acta de la sesión anterior**

2021eko apirilaren 27an egindako bileraren akta aurkeztu da, onartzeko.

Se presenta para aprobación el acta de la sesión celebrada el 27 de abril de 2021

Aktari buruzko oharrrik ez dagoenez, onartutzat jo da.

No existiendo observaciones al acta, se da por aprobada.

**2.-**

**Sailetako arduradunen informazioa zenbait jarduketaz eta Alkatetzarako laguntza bere eskuduntzak erabiliz**

**Información de los responsables de áreas sobre distintas actuaciones y asistencia a la Alcaldía en el ejercicio de sus atribuciones**

**HERRITARTASUNA**

Enara Diezek maiatzean berdintasunari buruz egingo den kanpaina azaldu du.

**CIUDADANÍA**

Enara Diez expone la campaña sobre Igualdad prevista para mayo.

Marta Alvarezek azaldu du Gizarte Zerbitzuen eta Behargintzaren arteko profil komunak lantzen ari direla, eta pertsona bat izendatu dutela horri buruzko laguntza emateko.

Marta Alvarez explica que se está trabajando en los perfiles en común entre Servicios Sociales y Behargintza, asignando a una persona para realizar el acompañamiento al respecto.

Ugaitz Zabalak dioenez, Olgetan Familiaren Programa jarriko da martxan euskara arolotik.

Ugaitz Zabala afirma que se va a poner en marcha desde Euskera el Programa Familia Olgetan.

Estibaliz Bilbaok azaldu duenez, kirol arloa ohiko ordutegira itzuli da Alarma Estatua amaitu ondoren.

Estibaliz Bilbao explica que el área de Deportes ha vuelto al horario normal tras el fin del Estado de Alarma.

**ANTOLAKUNTZA**

Arantxa Diaz de Jungituk azaldu du Aurrekontu Irekiak 2. fasean daudela, 750 bozketarekin oraingoz, eta epea zabalik dagoela 05/16 arte.

**ORGANIZACIÓN**

Arantxa Diaz de Jungitu expone que los Presupuestos Abiertos están en 2ª fase, con 750 votaciones por el momento, estando el plazo abierto hasta el 16/05.

Arantxa Diaz de Jungituk arloetako arduradunei eskatu die azter ditzatela 2022rako Ordenantza Fiskalak aldatzeko egon daitezkeen beharrak.

Arantxa Diaz de Jungitu solicita a los responsables de las áreas que vayan estudiando las posibles necesidades de modificación de

## Ordenanzas Fiscales para 2022.

### LURRALDE TASUNA

Jakinarazten da kontratazio-mahaiak HAPO egiteko eta idazteko lizitazioan falta diren gutun-azalak irekiko dituela eta, hala badagokio, dagokion proposamena osoko bilkurara bidaliko duela, lurralde-batzordearen irizpena jaso ondoren.

### TERRITORIO

Se comunica que se va a proceder por la mesa de contratación a la apertura de los sobres que faltan en la licitación de la elaboración y redacción del PGOU y, en su caso, remitir a pleno la correspondiente propuesta, previo dictamen de la comisión de territorio

Goizeko zortziak eta berrogeita hamabost minutu direla, Alkateak ekitaldia amaitutzat eman zuen, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio. Nik, idazkariak, egiaztatzen dut akta hori.

Y siendo las ocho horas y cuarenta y cinco minutos, por la Alcaldía se dio por finalizado el acto, ordenándose a esta Secretaría, levantar el acta correspondiente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.

Visto bueno